



Plantilak esleitzeko irizpideak akordioa

2025eko otsailaren 10ean Haurreskolak Partzuergoko pertsonalgoaren hitzarmen kolektiboari buruzko aurreakordioa sinatu zen LAB sindikatuarekin. Lan hitzarmenaren aurreakordioan jaso bezala eta hitzarmena sinatzearekin batera, erabaki zen Haurreskoletan plantilak esleitzeko irizpideak negoziatzeko egutegia eta berau negoziatzeko aldagaien dokumentua sinatzea.

1.- Helburua:

Funtsezko aldagaiak kontuak hartuko dituen eta haurreskoletan giza baliabideak modu zuzen eta eraginkorrean banatuko direla bermatuko duen esparru bat ezartzea.

2.- Giza baliabideen garrantzia:

Aitortzen dugu giza baliabideek berebiziko garrantzia dutela gure haurreskoletan. Erreferentziazko pertsonak funtsezkoak dira haurren garapenerako eta ongizaterako. Talde bakoitzak kualifikatutako haur hezitzaileak dituela ziurtatzea lehentasuna da kalitatezko hezkuntza zerbitzua eskaintzeko. Edozein kasutan ere lan hitzarmenean sinatutako haur hezitzaileen lan baldintzak aintzat hartu behar dira, batez ere 6 orduko arreta zuzena dutela eta prestakuntza denbota eta dituzten lan lizentzia eta baimenak bermatze aldera.

Erabaki zen erizpide hauetan gela kopurua, haur kopurua, hezitzaile kopurua, taldekatze gelak, haurren egonaldi-ordutegiak, premia bereziak dituzten haurren beharrak, hezitzaileen prestakuntza eta formazio orduak, koordinatzaileen dedikazio eta liberazio orduak, gutxieneko ordutegia bi hezitzailearekin, ordezkapenen estaldura eta hezitzaile gehigarriak kontutan edukitzea.

3.- Lan hitzarmenaren

Lan hitzarmenaren 8. artikulua oinarri hartuta, plantillak eta hauek esleitzeko erizpideak aztertuko dituzte, ratioak aztertuz, negoziazio eta adostasuna bilatuz, administrazioak arlo horretan dituen eskumenei galterik egin gabe. Funtsezko aldagaiak kontutan hartu eta antolaketa-gaiak aztertuz, haurreskoletan giza baliabideak modu zuzen eta eraginkorrean banatuko direla bermatuko duen esparrua ezarri.

Guzti hau kontuan hartuta Haurreskoletako plantillak esleitzeari buruz LAB sindikatuarekin landu den akordio hau, lan hitzarmenaren 8. artikuluan jaso den bezala, ordezkaritza duten gainontzeko sindikatuak negoziatzeko eta sinatzeko aukera izan dutelarik, 2026ko apirilaren 13tik aurrera aplikatuko da, eta eranskin bidez hitzarmenara gehituko da, betiere Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 194. artikuluan jasotakoa jarraituz.

Akordio honen ondorioz sortu beharreko lehenengo produkzio arrazoiengatik kontratuak 2026ko apirilaren 13an sortu arren, erizpide hauen aplikazioagatik urtarrian sortu beharrekoak, urtarrian sortuak bezala aitortuko dira, 2024ko apirilean Haurreskolak



Partzuergoko 2008ko lan hitzarmenaren 12.4 artikulua aldatzen zuen akordioa eta gerora 2025eko otsailaren 10eko aurreakordioan jasotakoari atxikituz. Horrela, hurrengo urteko urtarrilean berriro kontratu hauen beharra bada edo egongo bada, behar hori egiturazko beharra dela ulertuko da eta 2027ko irailaren 1erako lanpostu zerrendan gehitu eta hornituko dira. Aldagai horiek kontutan edukita Haurreskolak Partzuergo Publikoko haur hezitzaileen plantillak esleitzeko irizpideak zehazten dira.

1. Oinarrizko ratioak

1.1.1. Unitatebakarreko zentroak.

0 urteko haurrak badaude. Gehienez 0 urteko 5 haur egongo dira.

- ✓ Gutxienez 1,5 hezitzaile.
- ✓ Taldekatzean 6 haurrekin 2. Hezitzaile.

1 urteko haurrak badaude

- ✓ Gutxienez 1,5 hezitzaile.
- ✓ Taldekatzean 8 haurrekin 2. Hezitzaile.

1.1.2. Unitate anitzeko zentroak.

Sehaskak

- ✓ 4 haur arte hezitzaile bat.
- ✓ 5 haurrekin 1,5.
- ✓ 6tik aurrera 2 hezitzaile.

Urtebeteko gela

- ✓ 6 haurrekin 1,5.
- ✓ 9 haur edo gehiago 2 hezitzaile.

Taldekatzeak. Gehienez 0 urteko 5 haur egongo dira.

- ✓ 4 haur arte hezitzaile bat
- ✓ 5 haurrekin 1,5.
- ✓ 6tik aurrera 2 hezitzaile.

Ikasturtean zehar matrikulazioaren ondorioz haurreskolan haur kopurua gorantza badoa, hezitzaile kopurua behar berriei egokituko zaie, irizpide hauen arabera.

Ikasturtean zehar, matrikulazioen uko egiteak eraginda, haur kopuruak beruntza egingo balu, esleitutako jardunak mantendu egingo dira. Kasu honetan, ordezkapenak eskatuko balira, momentuan dauden haurren kopuruaren arabera egingo dira ordezkapenak, horrela badagokio.

1.2. Taldekatzea gelak sortzeko irizpideak

Aurreko ikasturtean 10 haur edo gutxiago egon baziren haurreskolan eta apirila/maiatzeko izen ematean **ez badaude 10 haur, taldekatzea ikasturte hasieratik** egingo da.

Gainerakiko haurreskoletan adin tarteko bateko gela hutsik balego eta beste adin tarteko plazarik ez badago, taldekatzea egin edo beste adin tarterako erabili ahal izango da gela, betiere udala eta hezitzaile taldea entzunda.



Martxoa eta apirileko izen ematean taldekatzeak egin ahal izango dira haurreskola guztietan.

Urtarriletik aurrera aurreko ikasturtean 20 haur baino gutxiako izan dituzten haurreskoletan taldekatzeak egitea banan bana baloratuko da, betiere udala eta haurreskolako koordinatzailea entzunda.

1.3. 2/3 urteko haurrak dauden haurreskoletan

2-3 urteko haurrak 1-2 urteko haurrak balira hartuko dira kontutan 0-3 eskaintza egiten den Haurreskoletan.

2. Baliabide gehigarriak

Azken urteotan haur kopuruak gorantza egin du haurreskoletan, baita haurren egonaldi-ordutegiak ere.

Haur kopurua eta haurren egonaldi-ordutegiak eragin zuzena dute haurreskolen hezitzaile kopuruan. Hori dela eta, prestakuntza eta koordinaziorako indartzeak, haurren eta hezitzaileen kopuruarekin eta familiek eskatzen duten haurren egonaldi-ordutegiekin lotuta jasotzen dira. 6 ordura arte edo 6 ordutik aurrera aurrera.

Ikasturtean zehar matrikulazioaren edo ordutegien aldaketen ondorioz egonaldi-ordutegi zabala duten haurren kopurua gorantza badoa, hezitzaile kopurua behar berriei egokituko da.

Ikasturtean zehar, matrikulazioen uko egiteak eraginda edo ordutegien aldaketen ondorioz, egonaldi-ordutegi zabala duten haurren kopuruak beruntza egingo balu, esleitutako jardunak mantendu egingo dira. Kasu honetan, ordezkapenak eskatuko balira, momentuan dauden haurren kopuruaren arabera egingo dira ordezkapenak, horrela badagokio.

2.1. Prestakuntza eta koordinazioa.

2.1.1. Koordinazioa ordezkatzeko ez den haurreskoletan

1,2,3,4 eta 5 unitateko haurreskoletan, koordinazio denbora ez denez ordezkatzeko, koordinazio, prestakuntza denbora, hezitzaileen jarduna eta haurrekin eman beharreko arreta denbora bermatzeko giza baliabide gehigarriak.

Landa eremuan 3 , 4 eta 5 haurrekin hezitzaile bat jardun osoan eta beste bat jardun erdian egongo dira. Ordutegi zabala badu haurreskolak hezitzaile bat jardun osoan eta beste bat bi herenetan egongo dira.

6 haurrekin bi hezitzaile egongo dira. 6 haur edo gehiagok egonaldi-ordutegi zabala eskatu badute, beste hezitzaile bat jarriko da jardun erdian, prestakuntza eta koordinazioa bermatzeko.

✓ Unitate bat.

3 , 4 eta 5 haurrekin hezitzaile bat jardun osoan eta beste bat jardun erdian egongo dira. **Ordutegi zabala** badu haurreskolak **hezitzaile bat jardun osoan eta beste bat bi herenetan** egongo dira.



6 haurrekin bi hezitzaile egongo dira. **6 haur edo gehiagok** egonaldi-**ordutegi zabala** eskatu badute, **beste hezitzaile bat** jarriko da **jardun erdian**, prestakuntza eta koordinazioa bermatzeko.

✓ **2 unitate.**

Bi unitateetako haurreskoletan, lan-hitzarmenean jasotakoari jarraituz, dokumentu honetan zehazten diren ratioen arabera 4 hezitzaile baldin badaude jardun osoz, egunean 4 ordu eta 30 minutu eman behar dira guztira prestakuntza eta koordinaziorako.

Aurrekoa bermatu ahal izateko, haurreskolan **8 haurrek edo gehiagok** egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen badute **jardun erdia** izango duen hezitzaile batekin indartuko da. **16 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak **hezitzaile gehigarriaren jarduna osoa** izango da.

✓ **3 unitate.**

Hiru unitateetako haurreskoletan, lan-hitzarmenean jasotakoari jarraituz, dokumentu honetan zehazten diren ratioen arabera 6 hezitzaile baldin badaude jardun osoz, egunean 6 ordu eman behar dira guztira prestakuntza eta koordinaziorako. Hezitzaile kopurua beste bat bada, prestakuntza eta koordinaziorako eman beharreko denbora proportzionala izango da.

Aurrekoa bermatu ahal izateko, Haurreskolan **8 haurrek edo gehiagok** egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen badute **jardun erdia** izango duen hezitzaile batekin indartuko da. **16 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak **hezitzaile gehigarriaren jarduna osoa** izango da. **29 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira, **bat jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**.

✓ **4 unitate.**

Lau unitateetako haurreskoletan, lan-hitzarmenean jasotakoari jarraituz, dokumentu honetan zehazten diren ratioen arabera 8 hezitzaile baldin badaude jardun osoz, egunean 8 ordu eta 15 minutu eman behar dira guztira prestakuntza eta koordinaziorako. Hezitzaile kopurua beste bat bada, prestakuntza eta koordinaziorako eman beharreko denbora proportzionala izango da.

Aurrekoa bermatu ahal izateko, Haurreskolan **8 haurrek** edo gehiagok egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen badute **jardun erdia** izango duen hezitzaile batekin indartuko da. **16 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak **hezitzaile gehigarriaren jarduna osoa** izango da. **29 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira, **bat jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**. **42 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira **jardunaldi osoz**.

✓ **5 unitate.**

Bost unitateetako haurreskoletan, lan-hitzarmenean jasotakoari jarraituz, dokumentu honetan zehazten diren ratioen arabera 10 hezitzaile baldin badaude jardun osoz, egunean 9 ordu eta 45 minutu eman behar dira guztira prestakuntza eta



koordinaziorako. Hezitzaile kopurua beste bat bada, prestakuntza eta koordinaziorako eman beharreko denbora proportzionala izango da.

Aurrekoa bermatu ahal izateko, haurreskolan **8 hurrek** edo gehiagok egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen badute **jardun erdia** izango duen hezitzaile batekin indartuko da. **16 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak **hezitzaile gehigarriaren jarduna osoa** izango da. **29 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira, **bat jardunaldi osoan** eta **beste jardun erdian**. **42 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira **jardunaldi osoz**. **55 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri hiru** jarriko dira, **bi jardunaldi osoan** eta **beste jardun erdian**.

Atal honetan jasotakoaren arabera, 2,3,4 eta 5 unitateko haurreskoletan, koordinazio, prestakuntza denbora, hezitzaileen jarduna eta hurrekin eman beharreko arreta denbora bermatzeko hurrengo giza baliabide gehigarriak jarriko dira:

HAURRAK EGONALDI-ORDUTEGI ZABALA	INDARTZEA JARDUNAK
8	0,5
16	1
29	1,5
42	2
55	2,5

2.1.2. Koordinazioa ordezkatzeko den haurreskoletan.

6 unitate baino gehiago dituzten haurreskoletan, prestakuntza denbora, hezitzaileen jarduna eta hurrekin eman beharreko arreta denbora bermatzeko giza baliabide gehigarriak:

✓ **6 unitate.**

Haurreskolan 11 hezitzaile edo gutxiago badaude, **5 unitateko haurreskoletarako jasota dauden irizpideak** erabiliko dira. Hori honela, koordinazio, prestakuntza denbora, hezitzaileen jarduna eta hurrekin eman beharreko arreta denbora bermatzeko hurrengo giza baliabide gehigarriak jarriko dira.

Sei unitateetako haurreskoletan, lan-hitzarmenean jasotakoari jarraituz, dokumentu honetan zehazten diren ratioen arabera 12 hezitzaile baldin badaude jardun osoz, egunean 9 ordu eman behar dira guztira prestakuntzarako. Hezitzaile kopurua beste bat bada, prestakuntza eta koordinaziorako eman beharreko denbora proportzionala izango da.

Haurreskolan 11 hezitzaile baino gehiago badaude hurrengo irizpideak erabiliko dira: Haurreskolan **16 hurrek** edo gehiagok egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen badute **jardun erdia** izango duen hezitzaile batekin indartuko da. **29 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak **hezitzaile gehigarriaren jarduna osoa** izango da. **42 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira, **bat jardunaldi osoan** eta **beste jardun erdian**.



55 haur edo gehiago badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira **jardunaldi osoz**.

✓ **7 unitate.**

Haurreskolan 11 hezitzaile edo gutxiago badaude, **5 unitateko haurreskoletarako jasota dauden irizpideak** erabiliko dira.

Zazpi unitateetako haurreskoletan, lan-hitzarmenean jasotakoari jarraituz, dokumentu honetan zehazten diren ratioen arabera 14 hezitzaile baldin badaude jardun osoz, egunean **10 ordu eta 30 minutu** eman behar dira guztira prestakuntzarako. Hezitzaile kopurua beste bat bada, prestakuntza eta koordinaziorako eman beharreko denbora proportzionala izango da.

Hurrekolan 11 hezitzaile baino gehiago badaude hurrengo irizpideak erabiliko dira: **16 hurrek** edo gehiagok egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen badute **jardun erdia** izango duen hezitzaile batekin indartuko da. **29 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak **hezitzaile gehigarriaren jarduna osoa** izango da. **42 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira, **bat jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**. **55 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira **jardunaldi osoz**. **68 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri hiru** jarriko dira, **bi jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**.

✓ **8 unitate.**

Haurreskolan 11 hezitzaile edo gutxiago badaude, **5 unitateko haurreskoletarako jasota dauden irizpideak** erabiliko dira. Hezitzaile kopurua beste bat bada, prestakuntza eta koordinaziorako eman beharreko denbora proportzionala izango da.

Zortzi unitateetako haurreskoletan, lan-hitzarmenean jasotakoari jarraituz, dokumentu honetan zehazten diren ratioen arabera 14 hezitzaile baldin badaude jardun osoz, egunean **12 ordu** eman behar dira guztira prestakuntzarako.

Hurrekolan 11 hezitzaile baino gehiago badaude hurrengo irizpideak erabiliko dira: **16 hurrek** edo gehiagok egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen badute **jardun erdia** izango duen hezitzaile batekin indartuko da. **29 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak **hezitzaile gehigarriaren jarduna osoa** izango da. **42 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira, **bat jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**. **55 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira **jardunaldi osoz**. **68 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri hiru** jarriko dira, **bi jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**. **81 haur edo gehiago** badira egonaldi-**ordutegi zabala** eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri hiru** jarriko dira **jardunaldi osoz**.

✓ **8 unitate baino gehiago.**



Haurreskolan 11 hezitzaile edo gutxiago badaude, **5 unitateko haurreskoletarako jasota dauden irizpideak** erabiliko dira.

Haurreskolan 11 hezitzaile baino gehiago badaude hurrengo irizpideak erabiliko dira: **16 haurrek** edo gehiagok egonaldi-ordutegi zabala eskatzen badute **jardun erdia** izango duen hezitzaile batekin indartuko da. **29 haur edo gehiago** badira egonaldi-ordutegi zabala eskatzen dutenak **hezitzaile gehigarriaren jarduna osoa** izango da. **42 haur edo gehiago** badira egonaldi-ordutegi zabala eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira, **bat jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**. **55 haur edo gehiago** badira egonaldi-ordutegi zabala eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri bi** jarriko dira **jardunaldi osoz**. **68 haur edo gehiago** badira egonaldi-ordutegi zabala eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri hiru** jarriko dira, **bi jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**. **81 haur edo gehiago** badira egonaldi-ordutegi zabala eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri hiru** jarriko dira **jardunaldi osoz**. **94 haur edo gehiago** badira egonaldi-ordutegi zabala eskatzen dutenak, **hezitzaile gehigarri lau** jarriko dira, **hiru jardunaldi osoan** eta **bestea jardun erdian**.

Atal honetan jasotakoaren arabera, 6 unitate baino gehiago eta 11 hezitzaile edo gutxiago dituzten haurreskoletan, koordinazioa, prestakuntza denbora, hezitzaileen jarduna eta haurrekin eman beharreko arreta denbora bermatzeko giza baliabide gehigarriak:

HAURRAK EGONALDI-ORDUTEGI ZABALA	INDARTZEA JARDUNAK
8	0,5
16	1
29	1,5
42	2
55	2,5

Era berean, koordinazioa ordezkatzeko den haurreskoletan, hau da, 6 unitate edo gehiago eta 11 hezitzaile baino gehiago dituzten haurreskoletan prestakuntza denbora, hezitzaileen jarduna eta haurrekin eman beharreko arreta denbora bermatzeko giza baliabide gehigarriak:

HAURRAK EGONALDI-ORDUTEGI ZABALA	INDARTZEA JARDUNAK
16	0,5
29	1
42	1,5
55	2
68	2,5
81	3
94	3,5

2.2. Haurreskolen tipologia

2.2.1. Eraikinen ezaugarriak.



Eraikin ezberdinetan dauden haurreskoletan urtez urte aztertuko da, banan bana, egoerak funtzionamenduan eragina badu, baliabide gehigarriak jartzea. Berdin egingo da solairu bat baino gehiago duten haurreskoletan. Bi aldagai hauek dituzten haurreskolen egoera, hezitzaileak entzun ondoren, mahai parekidean aztertuko da.

2.3. Gutxieneko ordutegia bi hezitzailearekin

Haurreskolaren hezitzaile taldeak erabakiko du, zein izango den haurreskola horretan gelatan bi hezitzailearekin egon beharreko gutxieneko ordutegia, betiere akordio honetan jasotako irizpideen arabera haurreskolak dituen hezitzaileekin. Horrek arreta osoagoa eta eraginkorragoa bermatuko du.

2.4. Premia bereziak

2.4.1. Premia bereziak dituzten haur kopurua.

Arreta Goiztiarreko edota Haurreskolak Partzuergoko teknikariak egindako balorazio txostena egingo dute horrela eskatzen denean. Hezitzaile gehigarriak edota egokitzen txostenean ezarritakoaren arabera jarriko dira.

2.4.2. Egoera zaurgarriak eta indarkeria.

Lan hitzarmenaren 69. artikuluan jaso den bezala, edozein erasoari erantzuna emateko protokolo bat adostu beharra dago, hezitzaile, kudeaketa alorreko langile, familia eta haurrak kontuan izango dituenak.

Bestetik, langileen artean ere erasoak eman daitezke eta hauei ere aurre egiteko protokoloa berrituko da 2025-2026 ikasturtean zehar. Batzorde parekideak zehaztuko du zer irizpide erabiliko diren sexu jazarpen egoeren aurrean jarraitu beharreko prozedura/protokoloa finkatzeko eta horren berri emateko.

Bestetik, 2026-27 ikasturtean zehar, zailtasun handieneko baldintzetan lan egiten duten haurreskolak zeintzuk diren aztertuko da, haien beharrak zehatzago definitu eta, hartara, eskaintzen zaizkien baliabideak doitu ahal izateko.

Azterketa elementu osagarri hauetan oinarritu daiteke, besteak beste, gizarte zerbitzuetatik bideratutako haurren kopurua, premia bereziak dituzten haurren kopuru edo familien hizkuntza ofizialen ez jakintasuna tarteko. Mahai parekidean landu eta adostutakoaren arabera baliabideak zehaztuko dira.

Lanpostua egokituta duten langileen egoera kasuz-kasu aztertuko da Lan eta Osasun batzordeetan eta, horrela behar izanez gero, batzordeak baliabide gehigarriak ezartzeko proposamena egingo dio Mahai Parekideari. Betiere zehaztuta dituen mugak bere laneko ohiko jardura mugatzen badu eta lan hori beste hezitzaile batengan erortzen bada.

2.5. Beste batzuk



Ordezkapenen estaldura

Ordezkapen guztien estaldura modu egoki eta eraginkorrean egingo da, une oro hezkuntza zerbitzuaren kalitatea eusteko.

Oinarrizko ratioen ondorioz eta prestakuntza eta koordinaziorako edo haurren egonaldi-ordutegiagatik jarritako baliabideak ez dira ordezkapenak egiteko erabiliko baldin eta matrikulazioaren jaitsierarik ez badago.

Matrikulazioan jaitsiera balego eta ordezkapenak beharko balira, momentuan dauden haurren kopuruaren arabera, dokumentu honetan zehaztutako irizpideak bermatuz egingo dira, horrela badagokio.

Herena baino gutxiagoko hutsuneak dauden lan zentroetan, hutsune hauek metatuz jardun erdia osatzen bada, ordezkatu egingo da. Edonola ere, hezkuntza zerbitzu egokia emate aldera, Lan Hitzarmenean zehaztutako gutxieneko jardunera iristen ez diren beharrak estaliko dira, oinarrizko ratioak betetzen ez badira.

Akordioaren jarraipena

Halaber, plantillak esleitzeko irizpide hauen aplikazioaren jarraipena egingo da Lan Hitzarmenaren mahai parekidean. Ikasturtero eranskin honen jarraipena azaroan, apirilean eta ekainean egongo da. 2025-2026 ikasturtean, salbuespenez, apirileko azkeneko hamabostaldian ere egingo zaio akordioari jarraipena mahai parekidean.

Kudeaketa alorra

Azken urteetan Haurreskola Partzuergoan izandako aldaketak kontutan hartuta, kudeaketa alorrean zerbitzuaren dimentsionamendua aztertuko da 2026 urteko azken hiruhilekoan.

Bestelakoak

Era berean, Haurreskolen funtzionamenduan eragin dezaketen beste aldagai berriak txertatzea aztertuko da eta haurreskolen kalitatea eta eraginkortasuna hobetzeko sortzen diren iradokizunak eta behar espezifikoak kontuan hartuko dira.

Eibar, 2026ko martxoaren 2